# GAURKO FILMEAK

Kazetariek, karrera ikasten hasi aurretik Billy Wilderren 'Primera plana' filmea ikusiko balute, gaur egun ez litzateke gezurterorik ibiliko munduan bazter denak miatu eta muturra txoko guztietan sartzen. Urkamendira kondenatu duten errudun baten inguruan plumilla horiek erakusten duten jarrera zinikoa, komediak uzten zion garraztasunarekin aurkeztu zuen austriarrak, filme borobila, umoretsua, eta aldi berean kritikoa, osatuz. Wilderren salaketaren aurretik, Haskell Wexlerrek beste bi kazetariren abenturak pantailaratuko ditu, hori bai, tratamendu leunago batez. Kazetaritzaren korapilotik aterata, telebista eskaintzarik onena, Charles Chaplini eskainitako ziklo zoragarriak ekarriko du. Maria Felixen filmeen barnean, berriz, Romeo eta Julietaren beste bertsio bat dugu, eta 'Día de la independencia' tituluak mekaniko batez maitemintzen den emakume baten bestelako erromantzeaz astinduko gaitu. Ikusi halaber James Mason Crompton familiako buruaren rolean.

## 'Primera plana', kazetari izatearen oinazea

ANDRES GOSTIN

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 15.30 | A3 | ○○○ | LA FAMILIA CROMPTON | 1970 | Peter Hammond | 101 m. |
| 15.50 | T5 | ○○○ | MEDIO AMBIENTE FRIO | 1969 | Haskell Wexter | 117 m. |
| 16.30 | TVE2 | ○○ | EL PEÑON DE LAS ANIMAS | 1942 | Miguel Zacarias | 115 m. |
| 21.35 | ETB2 | ○ | INTIMIDADES DE UN SEPARADO | - | Peter Markle | 100 m. |
| 22.00 | C+(e) | ○○ | CONTACTO SANGRIENTO | 1987 | Newt Arnold | 100 m. |
| 22.20 | TVE2 | ○○○○○ | PRIMERA PLANA | 1974 | Billy Wilder | 100 m. |
| 23.00 | C+(f) | ○○ | RUNNING MAN | 1987 | Paul Michel Glaser | 95 m. |
| 23.45 | A2 | ○○○○○ | LE KID | 1921 | Charlie Chaplin | 50 m. |
| 00.15 | TVE1 | ○○○ | CUENTOS DE ULTRATUMBA | 1973 | Kevin Connor | 94 m. |
| 00.40 | A2 | ○○○○ | CLASSE DISIVE | 1921 | Charlie Chaplin | 31 m. |
| 01.15 | T5 | ○○ | EL BICHO | 1975 | Jeannot Szwarc | 101 m. |
| 02.00 | TVE2 | ○○ | EL DIA DE LA INDEPENDENCIA | 1983 | Robert Mandel | 102 m. |
| 02.30 | A3 | ○○ | JUVENTUD A LA INTEMPERIE | 1961 | Ignacio F. Iquino | 94 m. |

○ TXARRA ○○ ESKASA ○○○ BALEKOA ○○○○ ONA ○○○○○ BIKAINA

### PRIMERA PLANA

**1974, 100'**
**Zuzendaria:** Billy Wilder. **Aktoreak:** Jack Lemmon, Walter Matthau.
**TVE-2, 22.10etan**

Kazetaritzari buruz esan diren egia gutxiren artean, Billy Wilderrek eta I. A. L. Diamond bere ohizko laguntzaile eta gidoi egileak pelikula honekin adierazi zituztenak daude. Bada eszena bat bertan, kazetarien oinazea argi eta garbi agertzen duena: Susan Sarandonek Jack Lemmonekin ezkontzeko duen asmoa azalduko dio Walter Matthauri eta honek, elegantzia osoz, honela erantzugo dio: «Senarra nahi baldin baduzu, har ezazu borreroa edo enterratzailea baina ez zaitez sekula santan kazetari batekin ezkondu». Orduan, Susan Sarandonek bere senargaiak kazetaritza utziko duela aitortuko dio, eta Matthauk, patxada naturalaz, kazetaritza utzi ezinezko ofizioa dela adieraziz, ihardetsiko dio: «Ikusi al duzu inoiz leopardoren bat marrarik gabe?». Zoragarria, elkarrizketa zorrotzez josia, inteligentziaz betea. Lemmon eta Matthauren lana ezin da diru hutsez ordaindu. «Kazetari berria naiz. Gaurkoa nere lehenbiziko ejekuzioa da», esango du Lemmonen ordezkariak. «Urkatzeko zain dagoenarena ere bai», erantzungo diote gainerako kazetariek. Gehiegizkoa.

### MEDIO AMBIENTE

**1969, 117'**
**Zuzendaria:** Haskell Wexler. **Aktoreak:** Robert Foster, Verna Bloom.
**T-5, 15.50etan**

Wexler, filme ezagunetan parte hartu duen tekniko famatua da eta 'Kuku habiaren gainean hegan' edo '¿Nor da Virginia Woolfen beldur-en?' operatzaile eta argazki zuzendari bezala lan egin ondoren, kazetaritzaren inguruko titulu kurioso hau zuzendu zuen. Istripuak, ezbeharrak eta antzeko gertakizunak lantzen dituzten bi kazetari aspertuta daude. Bapatean, beltz behartsu batek taxian aurkitu hamar mila dolar nola bueltatuko dituen ikusiko dute, eta ordutik aurrera beltzen egoeraz kezkatuko dira.

### CUENTOS DE ULTRATUMBA

**1973, 96'**
**Zuzendaria:** Kevin Connor. **Aktoreak:** David Warner, Donald Pleasance.
**TVE-2, 22.00etan**

Fantasiako filme eta zientzia fikziokoetan tajuz trebatu ondoren, Kevin Connor beldurrezkoekin saiatu zen, ohizko imaginazio apurra erantsiz. Baina bere zinemako azierto eta akats guztiak inportatu zituen genero berrira, eta historiak kondatzeko zailtasunak izaten ditu. Antigoaleko traste eta ispilu baten inguruko espiritismo saioak hartuko du hariaren lekukoa.

### EL PEÑON DE LAS ANIMAS

**1942, 120'**
**Zuzendaria:** Miguel Zacarías. **Aktoreak:** Jorge Negrete, María Félix.
**TVE-2, 17.30etan**

Romeo eta Julieta, Fernando eta Maria Angela bihurturik. Capulettoak eta Monteskoak, Iturriaga eta Valdivia familien azalean. Genovako kaleak Jaliscoko rantxoen koloreaz. Shakespearen drama erromantikoak Jorge Negrete eta Maria Felix izango ditu protagonista bezala bere hamaikagarren bertsioan. Mexikoko lurrak eta usadioak ezaugarri bereziak erantsiko dizkio historiari. Bi aktoreek bikote ona osatuko dute, nahiz eta Miguel Zacarias zuzendari eta gidoigilea, filme txukuna egiteko kapaz ez izan.

### LE KID

**1921, 50'**
**Zuzendaria:** Charlie Chaplin. **Aktoreak:** Charlie Chaplin, Jackie Coogan.
**A-2, 23.45etan**

Charlie Chaplinen humanismo guztia haur abandonatu bat aurkitzen duen arlotearen ikuspegitik. 'Le kid' maitasun kantua da, malkoak eta algarak sortuko dituen komedia dramatikoa. Bonbina eta bastoiaz gain, Charlotek bere bihotza erakutsi zion oraingoan tarteka negarra ixur arazi zigun Jackie Coogani, gendarme baten aurrean Chaplinekin hainbat bider ikusi dugun mukizu horri.













**LA CINQ 5**

07.15: **Youpi!.** 09.00: **Le club du télé achat.** 09.20: **Anne jour aprés jour.** 09.35: **Aux frontières du possible.** 10.35: **Lunes de miel.** 11.00: **Télé contact.** 11.30: **Les surdoués.** 12.00: **Le midi pile.** 12.05: **Public.** 12.30: **Un rien mabille.** 12.45: **Le Journal.** 13.30: **Matlock.** 14.25: **Le renard.** 15.30: **Bergerac.** 16.30: **Youpi l'école est finie!** 18.30: **Happy days.** 19.00: **Arnold et Willy.** 19.10: **Tel père tel fils.** 20.00: **Le journal.** 20.35: **Drôles d'histoires.** 20.40: **«Enquête d'indices.** 22.25: **L'inspecteur Derrick.** 23.30: **Nomades.** 00.00: **Le minuit pile.** 00.10: **Tennis.** 01.10: **Aux frontières du possible.** 02.35: **Lunes de miel.** 02.00: **Anne jour après jour.** 02.15: **Tendresse et passion.** 02.40: **Journal de la nuit.** 02.50: **Voisin voisine.** 03.45: **Tendresse et passion.**

**M6**

06.00: **Boulevard des clips.** 07.05, 08.05, 09.05, 10.20, 11.05, 14.45 **eta** 00.25**etan ere bai.** 07.00: **M6 Express. Orduero** 12.00**ak arte eta** 16.00**etan.** 07.05: **Contact 6 manager.** 10.05: **Infoprix.** 10.10: **M6 Boutique.** 11.35: **L'aventurier.** 12.05: **Papa Schultz.** 12.30: **Ma sorcière bien aimée.** 13.00: **Dis donc papa.** 13.25: **Madame est servie.** 13.55: **Docteur Marcus Welby.** 15.30: **Bleu, blanc, clip.** 16.45: **Vegas.** 17.40: **Zygomusic.** 18.00: **Zygomusic.** 18.30: **Papa schultz.** 19.00: **Magnum.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Madame est servie.** 20.30: **Météo 6.** 22.35: **Les loups dans la nuit.** 22.20: **Brigade nuit.** 23.10: **La 6e dimension.** 23.40: **Capital.** 23.45: **6 minutes.** 23.50: **Dave en concert.** 02.00: **Hommes et architecture du sahel.** 02.50: **Au carrefour du boudhisme et l'hindouisme.re pub. 3.35: Culture pub.** 04.00: **60 minutes.** 04.50: **Tan dura es la vida.**

**CANAL+**

08.05: **Les nuls... l'émission.** 09.00: **«La vengeance d'une femme».** 11.05: **Flash info.** 11.40: **Mancuso, FBI.** 12.25: **La grande famille.** 13.30: **«Big».** 15.10: **Les inventions de la vie.** 16.00: **«Futur inmédiat, L.A. 1991».** 17.30: **Rapido.** 18.00: **Cnaille peluche.** 18.30: **Ça cartoon.** 18.50: **Top Albums. ulle part ailleurs.** 20.05: **Football:** 22.40: **Exploits.** 23.00: **«Running man».** 00.35: **«Du blé plein les poches».** 02.45: **«Nuits très chaudes aux Caraibes.**

**CANAL+**

07.10: **Buenos días, buenos clips.** 08.00: **Redacción.** 08.10: **El tigre enmascarado.** 08.35: **ABC Worl News.** 09.00: **Redacción.** 09.10: **Los 40 principales.** 10.00: **«Cuentos asombrosos VI».** 11.12: **Escándalo: por la via rápida. Dokumentala.** 12.05: **«Manos de asesino».** 13.42: **Redacción.** 13.45: **Humor: Rhubarb, Rhubarb.** 14.15: **«Tierra de nadie».** 16.00: **«La casa de Carroll Street».** 18.05: **Hallo Spencer.** 18.35: **Los 40 principales.** 19.30: **Primos lejanos.** 20.00: **Redacción.** 20.10: **«Fievel y el nuevo mundo».** 21.28: **Tiny Toons.** 21.55: **Redacción.** 22.00: **«Contacto sangriento».** 23.30. **'El Sr. H se retrasa'.** 00.00: **Redacción.** 00.30: **«Casa de juegos».** 02.08: **«El regreso de los tres mosqueteros».** 03.42: **«Pathfinder».** 05.05: **Piezas canal +.** 05.20: **«Slugs».** 06.50: **«Luna de lobos».**

**TELE 5**

08.00: **Marrazki bizidunak.** 09.00: **Corín Tellado.** 10.00: **Vip.** 10.30: **Días de baile.** 11.15: **Camino de luz.** 11.45: **Misión imposible.** 12.45: **La revancha.** 13.30: **La magia de Emmy.** 14.00: **Entre platos anda el juego.** 14.30: **Pase por caja.** 15.00: **Señora.** 15.50: **«Medio ambiente».** 17.45: **Super guay.** 19.00: **Misión imposible.** 20.00: **Vip.** 20.30: **Campeones.** 20.55: **Hoy.** 21.00: **Telecupón.** 21.15: **Su media naranja.** 22.00: **La compañía.** 23.45: **Entre hoy y mañana.** 00.15: **¿Hablando se entiende la gente?.** 01.15: **«El bicho».**

**A3**

08.00: **Noticias.** 08.05: **La guardería.** 09.30: **Noticias de la economía.** 09.45: **De tú a tú.** 10.15: **Pasarela.** 11.00: **Teletienda.** 11.30: **Noticias. La salud es lo que importa.** 12.45: **Teletienda.** 13.00: **Pasionaria.** 13.50: **Noticias.** 14.00: **Los segundos cuentan.** 14.30: **Embrujada.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **«La familia Crompton».** 17.10: **Teletienda.** 17.20: **Noticias.** 17.23: **La merienda.** 18.50: **Teletienda.** 19.00: **El coche fantástico.** 20.00: **La ruleta de la fortuna.** 20.30: **Noticias.** 21.00: **El hombre de los seis millones.** 22.00: **La clave I. La clave II. «Juventud a la intemperie».**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 89.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 93.1 |
| Donost. RNE-R4. | FM 92.2 | Gipuzkoa Herri Irr. | FM 99.8 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Xiberoko Botza. | FM 98.6 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.0 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |

**Bizkaia Irratia.** Egunero, goizeko 10.30etan eta eguerdiko 13.30etan, laborariei zuzenduriko Baserria irratsaioa.

**Arrate Irratia.** Gaueko 20.40etan, 'Jolasean' umeen irratsaioa Kalamusorgin sorginarekin. 'Sutondoko erromerian', Uite eta Zabale trikitilarien saio alaia. (21.30).

**Xiberuko Botza.** Kultur emanaldia: Miarritzeko Oldarra dantza taldeak, bihar Maulen aurkeztuko duen ikusgarri berriaz solasaldia goizeko 10.30etan. Arratseko 19.30etan Iparraldeko hiru irratiek bat egingo dute presoen emanaldia eskaintzeko. Jazz musika ere izango da gaueko 20.30etan.

**Irulegi Irratia.** Xiberuko Botzarekin batera Oldarra dantza taldearekin elkarrizketa. Amikuzeko egoera larria aztertuko dute zuzenean Donapeleutik. Goizeko 11.00etatik aurrera.

**Gipuzkoako Herri Irratia.** 'Zuzenean zuretzat' saioan, entzuleek aukera dute, beren agurrak bidaltzeko batik bat zahar eta gaixoei eskutitz bidez edo zuzenean telefonoz deituko zaie.

**Euskadi Irratia.** Andu Lertxundi idazleak zuzentzen duen ostiraleroko 'Iturri onetik' saioan, umorezko testuen bildumaren, bigarren zatia emango da.